# <u>FUNTSEZKO ELKARTEA</u>

Gure enpresa berritzailearentzako ezinbestekoa iruditzen zaizkigu Funtsezko Elkarteak izatea, hau da: hornitzaile eta bazkide sareak finkatu edo hauekin aliantzak egitea. Izan ere, modu hontara gure ideia aurrera atera ahal izango dugu. Beraz, Funtsezko elkarteetaz baliatuz, behar ditugun baliabideak lortzeaz gain, zakarrontzi inteligenteak ekoitziko lirateke eta horiek bezeroengana iritsi ahalko lirakete.

Egingo ditugun aliantzak, erosle eta hornitzaileen arteko harremanak, materialen eskuragarritasuna bermatzekoak izango dira. Aliantza mota honetaz baliatuz, gure jarduera aurrera eramateko beharrezkoak dituzten baliabideen eskuragarritasuna bermatuko dugu. Horrez gain, gure aliantzak elkarrekiko lehiakideak ez garen enpresen arteko aliantza estrategikoak izango dira; izan ere, aliantzatuko garen enpresen negozio-ereduak ez dira lehiakide gure merkatu-segmentuan eta hortaz, batera lanean aritzea guztientzat errentagarria izango da. Beraz, aliantza hauen bitartez, azpikontratazioa dela medio lan postu berriak sustatuko genituzte, kostuak murriztuko genituzke (gure kabuz egin ez gero garestiago izango litzatekeelako), baliabideak espezifikoak eskuratzeko gai izango ginateke, bezero berriak sortuko genituzke…

Aipatutako helburu guztiak bete ahal izateko, hauek dira harremanetan jarri eta aliatuko garen enpresekin: Binology LLC, Laumas, EOS eta Wimmer Maschhinertransporte GMBH.

Lehenik eta behin, , izan ere, zakarrontzien tamaina dela eta, ezingo genuke edozein garraoibide erabili gure produktua bezeroengana eramateko gure aldetik.Lehenik eta behin, **BINOLOGY LLC** enpresarekin aliatuko gara, eguzki panelak dituzten zakarrontzien oinarriak eskainiko dizkigutelako. Gure proiektuaren zati garrantzitsuena zakarrontzia bera da, alegia, zakarrontzi baten egitura duen metalezko kaxa handi bat, bertan zaborra gordeko duena. Gainera, proiektuaren zati berritzailetako bat eguzki panelak dira, hau da, zakarrontziek behar duten energia eta elektrizitatea lortzeko izango duten bide autonomoa. Horregatik, enpresa honekin aliatzea egokia ikusi dugu, horretan adituak direlako.

Horrez gain, **LAUMAS** enpresa oso lagungarria izango zaigu zakarrontzien sentsore sistema lortzeko. Azkenean sentsore hauek beharrezkoak ditugu, botatako zakarraren bolumen eta pisua neurtzeko. Izan ere, horren araberakoak izango dira tiketaren puntuak;

geroz eta bolumen eta pisu arteko erlazioa handiagoa izan, geroz eta puntu gehiago lortuko dira tiketean.

Gainera, **EOS** enpresarekin aliantza egin dugu tiketaren funtzionamendurako. Aurretik aipatu bezala, edonork zaborra botatzen duenean zaborrontzira, sentsoreen bidez irakurri ondoren, tiket bat aterako da zaborrontzitik. Tiket hori smartphone batekin irakurri ondoren, puntu batzuk lortzeko aukera izango dugu, ondoren herriko / hiriko dendatan abantailak izateko. Hori dela eta, EOS enpresa nahita ezkoa dugu gure proiektuaren gauzapenerako, tiketen mekanismoa beraien eskutik sortuko genukeelako. Bestalde, tiketen erabilerarentzat, guk geuk sortutako aplikazio baten bidez egingo genuke, puntuak eta abantailak lortu ahal izateko.

Azkenik, **TRANSVOLANDO** enpresa oso beharrezkoa izango zaigu, honi esker, gure zakarrontzi inteligenteak garraiatu ahalko ditugulako. Enpresa honek egingo duen garraioarengatik, bezeroengana iritsiko dira gure zakarrontzi inteligenteak, izan ere, zakarrontzien tamaina dela eta, ezingo genuke edozein garraoibide erabili gure produktua bezeroengana eramateko gure aldetik.

Irati Zarranz, Irati Salgado, Anje Irastorza, Julen Garmendia eta Xabier Urigoitia

| JARDUERA | ALIANTZAK (ENPRESAK) | IRUDIA |
|---|---|---|
| Material banaketa<br>- Zakarrontziak plaka solarrekin | **BINOLOGY LLC**<br>(zakarrontzi inteligenteak banatzen dituen enpresa. Plaka solarren bitartez futzionatzen dutenak.<br><br>https://www.europages.es/BINOLOGY-LLC/00000005413135-001.html |  |

| | | |
|---|---|---|
| Sentsore sistema | **LAUMAS ELETTRONICA**<br>https://www.laumas.com/es/productos/celulas-de-carga-y-accesorios-de-montaje/?gclid=Cj0KCQjw--2aBhD5ARIsALiRlwBviDYZq24gfrByKWqWQcGgvcQo0smUxy9HA5heETs2oQG5qTnOMJcaAleUEALw_wcB |  |
| Tiketaren funtzionamendua | **EOS**<br>https://eosiberica.es/blog-ticketing-emision-de-tickets/<br> |  |
| Zakarrontzi inteligenteen garraioa | **TRANSVOLANDO**<br>https://transvolando.com/eu/gran-volumen/ |  |